



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

## **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK DESKARGAKO BIDESARIARI ETA EGOITZEN EGOEREARI BURUZKO KEXAK ENTZUN DITUE**

- **Batzar Nagusietako Eskaeretarako eta Herritarrakazko Hartu-emonetarako Batzordeak Irizarreko behargin biren eta LAB sindikatuko hiru ordezkariaren eskariak entzun ditu gaur.**
- **Bizkaiko parlamentuak EH Bilduren proposamena jaso dau, Aldundiak Abiñako San Antonio Busturian integretea aztertzeke txosten teknikoa egin daian.**

(Bilbon, 2022ko maiatzaren 6an). Bizkaiko Batzar Nagusietako Eskaeretarako eta Herritarrakazko Hartu-emonetarako Batzordeak Irizar enpresako behargin bi eta LAB sindikatuko hiru ordezkari hartu ditu gaur. A-636 errepideko (Deskarga) bidesariari eta Bizkaiko itunpeko egoitzen egoereari buruzko eskaerak jarri ditue mahai gainean, hurrenez hurren.

Aitor Blanco González eta Zoraida Moreno Bator, biak Bizkaian bizi diran Irizar enpresako beharginak, Beasain eta Bergara artean A-636 errepideko (Deskargako autobia lez ezagutzen dana) bidesaria martxan jarreak eragindako gastuen igoerearen ondorioz Gipuzkoako Goierri behar egiten daben bizkaitar askok bizi daben egoerea jarri dabe mahai ganean. Biek eskatu dabe Bizkaiko araudian diru-laguntza bat jasotea, eguneroko joan-etorrien kostua handitzeak eragindako gastuen parte bat ordaintzeko. Bidesarrietan bakarrik gastu hori “ia bikoiztu egin da”: hilean, “85,09 euro” izatetik, “171,09 euro” izatera pasau da. “Larregizko” igoera horri erregaien igoerea gehitu behar jako. Beharginen berbetan, hilean “459 euroko” gastua daukie, eta igaz, barriz, “378 eurokoa” eukien.

Egoerea, laneko errazoiengatik egunero Bilbo metropolitarretik “75 kilometro” ingurura dagozan Goierriko enpresetara, horreen artean Irizar, CAF, Indar edo Ampo, joan behar daben Bizkaiko eta Arabako gidariak ari dira “jasaten”. Gipuzkoan bizi diran personek “% 55 eta % 75 arteko” deskontuak ditue Deskarga erabilteagaitik, edo “34,15 euroko” tarifa finkoa hilean.

Ganera, ez dago garraio publiko alternatibarik, ezta alokairu-aukerarik be inguruan, etxebizitzaren prezio garestiarengaitik, eta autoa partekatzeko aukerea “konplikaua” da, konpainia horreetako beharginen ordutegiak eta jomugea desbardinak diralako, eta horrek “kezkea” sortzen dau. “Jentea beste enpresa batzuetara lanera joatea baloretan



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

ari da”, oharlarazo dabe. Irizarreko behargin biek argi itxi dabe ez deusela uko egiten bidesaria ordaintzeari, “azpiegiturak garestiak diralako eta mantentze-lanak egin behar direlako, baina ordaintzeko moduko prezioan” izan behar dau, Morenok esan dauenez.

Batzar Nagusietako oposizinoko taldeek eskunarrua jaso dabe, baina Talde Berezia-PP Bizkaiak penaz adierazo dauenez, beharginen eskaereak “horma baten kontra” joko dau, Bizkaiko Foru Aldundiaren egungo errepide-politikea “bidesari gehiago” ezartearen aldekoa dalako. Elkarrekin Bizkaiak eta EH Bilduk be egoerea “bidebakoa eta diskriminatzailea” dala adierazo dabe. Talde moreak iragarri dauenez kasua aztertuko egingo dau eta ekimen parlamentarioa planteauko dau Batzar Nagusietan eztabaidetako. “Koherentzia egon behar da hiru lurraldeen artean, herrialde txikia garalako”, adierazo dau EH Bilduk. Beste alde batetik, Foru Gobernuari eusten deusien taldeetako (Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak) ordezkariak eskerrak emon deusiez bertaratutakoei, emondako azalpenengaitik; Sondikan bizi dan Blancori eta Etxebarrin bizi dan Morenori.

## BIZKAIKO EGOITZAK EGOERA “LARRIAN”

Bizkaiko parlamentuak LAB sindikatuko hiru ordezkariaren agerraldia hartu dau. Ordezkari horreek, euren eretxiz “larria” dan Bizkaiko egoitzen egoera deskribidu dabe. Adinekoak artatzen behar egiten daben beharginen azken mobilizazioak sortu dituen errazioak gogorarazo ditue.

Nekane Olalde Azkarate, Monica Rojo Riaño eta Idoia Bustinza González Bizkaiko egoitzen eredu aldatzeko “laguntzea eta eskuak eskatzera” joan dira Batzar Nagusietara. “Kontua ez da soldata handiagoo izatea”, ratioak aldatzeko “laguntza eskatzea” baino, “ezin dalako onartu enpresa putre horreek gure adinekoak eta beharginak negozio bihurtzea”, azpimarratu dau Olalde, Ermuko Abeletxe egoitzako beharginak. Sektoreko beharginak eta sindikatu abertzaleko ordezkariak salatu dabenez, pandemiaren urte bi honeetan, kontuek “txarrera egin dabe”, eta beharginak “euren posibilidadeen mugan dagoz”. Gure adinekoak artatuko dituen “esku gehiago” behar dira, eta horretarako, euren eretxiz, ratioak hobetu behar dira.

20 urteko esperientzia dauen Monica Rojok salatu dauenez, enpresek “ez ditue beteten” hitzarmenak, eta enpresen etekina “gehienez be % 2ra mugatzea” eta egoitza publikoetan (Bizkaian 4) eta itunduetan (155) lan-baldintza “bardinak” ezartea eskatu dau. Azken horreetan, soldatea “1.200 euro” ingurukoo da, eta kantidade hori “ez da nahikoo” bizimodu independentea bermatzeko. Rojok gizarte-zerbitzuak “publifiketee” eta beste hobekuntza batzuk sartzea be eskatu dau, horreen artean gaixotasun eta arrisku profesionalak autortzea, lesino muskulu-eskeletikoak, antsiedadea edo depresioa, besteak beste. Kontuan izan behar da 67 urtera arte erretirorik hartu ezin



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

dauen eta “laneko eta etxeko bizimodua uztartzeko edo adin jakin batera iritsitakoan lanaldia murrizteko aukerarik ez daukan” kolektiboa dala.

## ABIÑAKO SAN ANTONIOKO LURRAK

Beste alde batetik, Eskaeretakako eta Herritarrakazko Hartu-emonetakako Batzordeak atzera bota dau Aldundiari Abiña auzoa Busturian sartzeko erabagiaren inguruko “txosten tekniko” egitea eskatzeko EH Bilduk egin dauen proposamena. Ekimena ez da onartu aldeko 6 boto –oposizino osoa– eta kontrako 9 boto izan ditualako. Foru Gobernuari eusten deusien taldeek kasua “daborduko epaitu dalako” eta bere egunean, 2017. urteko zezeilean, Bizkaiko Batzar Nagusiek erabagia hartu eien beharrezko txosten teknikoak egin ziralako defendidu dabe proposamenaren kontrako jarrera.

Sandideri herritarren plataformak, Osoko Bilkuraren erabagia “zuzentzeko” eta Abiñako San Antonio auzoa Sukarrietara itzultzea eskatu eban martiaren 11n. Bizkaiko parlamentuak onartu eta gero auzoa Busturiara pasau zan behin betiko.

Une honetan Busturiakoak diran izen bereko hondartzea eta BBKren Urdaibai Zentroa dagozan lurren inguruko eztabaidea orain dala hamar urte baino gehiago hasi zan. Azken kapituluetakoko bat orain dala urtebete gertatu zan, Auzitegi Gorenak auzibidea ixtea erabagi ebanean, Sukarrietako Udalak Euskadiko Auzitegi Nagusiak (EAN) ez ebalako onartu epaiaren kontra aurkeztutako kasazino-errekursoa. Epai horrek ezetsi egin eban Bizkaiko Batzar Nagusiek Abiña auzoa Busturian sartzeko hartutako erabagiaren kontra Sukarrietak jarritako administrazio auzi-errekursoa. Horregaitik, jeltzaleek eta sozialistek ez dabe ulertzen talde batzuek gai hori barriro edegi gura izatea.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA ATIENDEN QUEJAS CIUDADANAS SOBRE EL PEAJE DE DESKARGA Y LA SITUACIÓN DE LAS RESIDENCIAS**

- **La Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía de la Cámara foral ha escuchado hoy las demandas de dos trabajadores de Irizar, perjudicados por los peajes de la A-636, y de tres representantes del sindicato LAB.**
- **El Parlamento de Bizkaia tumba una propuesta de EH Bildu para que la Diputación elabore un “informe técnico” que estudie la integración de San Antonio de Abiña en Busturia.**

*(Bilbao, a 6 de mayo de 2022).* La Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía de las Juntas Generales de Bizkaia ha recibido hoy a dos trabajadores de la empresa Irizar y a tres representantes del sindicato LAB, quienes han puesto sobre la mesa sus demandas en relación al peaje de la A-636 (Deskarga) y la situación de las residencias concertadas de Bizkaia, respectivamente.

Aitor Blanco González y Zoraida Moreno Bator, ambos residentes en Bizkaia y trabajadores de la empresa Irizar, han puesto el foco en la situación que viven muchos vizcaínos y vizcaínas que trabajan en el Goierri guipuzcoano y que sufren el aumento de gasto derivado por la puesta en marcha del peaje de la A-636 (conocida como la autovía de Deskarga) entre Beasain y Bergara. Ambos han solicitado que se recoja en la normativa de Bizkaia una subvención para cubrir parte de los gastos generados por el incremento de coste de sus traslados diarios, que sólo en peajes “casi se ha duplicado”, pasando de “85,09 euros” mensuales a “171,09 euros”. A este aumento “abusivo”, habría que añadir la subida de los combustibles. Según ellos, sus gastos mensuales han pasado a ser de “459 euros”, frente a los “378 euros” del año pasado.

La situación la están “sufriendo” conductores de Bizkaia y Araba que por motivos laborales tienen que desplazarse todos los días a empresas del Goierri, como Irizar, CAF, Indar o Ampo, que están a unos “75 kilómetros” de distancia desde el Bilbao metropolitano. No así las personas residentes en Gipuzkoa que cuentan con descuentos de “entre el 55% y el 75%” en el peor de los casos por usar Deskarga, o con una tarifa fija de “34,15 euros” al mes.

Tampoco existen alternativas de transporte público, ni opciones de alquiler en la zona por los elevados precios de la vivienda, y la opción de compartir coche es “complicada”



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

debido a la disparidad de horarios y destino del personal de estas compañías en las que existen “preocupación”. “La gente está valorando irse a trabajar a otras empresas”, han advertido. Ambos trabajadores de Irizar han dejado claro que no reniegan de pagar un peaje “porque las infraestructuras son caras y hay que mantenerlas, pero tiene que ser a un precio asumible”, ha zanjado Moreno.

Los grupos junteros de la oposición han recogido el guante, si bien el grupo Mixto-PP Bizkaia ha lamentado que su petición se vaya a dar “contra un muro” ya que la actual política viaria de la Diputación foral de Bizkaia apuesta por implantar “más peajes”. Elkarrekin Bizkaia y EH Bildu han coincidido en señalar que la situación es “injusta” y “discriminatoria”. El grupo morado ha anunciado que estudiará el caso y planteará una iniciativa parlamentaria para su debate en las Juntas. “Debe haber una coherencia entre los tres territorios, porque somos un país pequeño”, se ha señalado desde la bancada abertzale. Por su parte, los representantes de los grupos que apoyan al Gobierno foral (Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos) han agradecido las explicaciones de las personas comparecientes; Blanco residente en Sondika y Moreno en Etxebarri.

#### “GRAVE” SITUACIÓN DE LAS RESIDENCIAS DE BIZKAIA

La Cámara vizcaína ha acogido la comparecencia de tres delegadas del sindicato LAB, que han descrito lo que para ellas es una situación “grave” de las residencias de Bizkaia. Han recordado las causas que están motivando las últimas movilizaciones del personal que trabaja atendiendo a las personas mayores.

Nekane Olalde Azkarate, Mónica Rojo Riaño e Idoia Bustinza González, han acudido a las Juntas a “pedir ayuda y manos” para cambiar el modelo de residencias de Bizkaia. “No es cuestión de más sueldo”, sino de “pedir ayuda” para que se modifiquen los ratios, “porque no se pueden permitir que estas empresas buitre hagan de nuestros ancianos y de las trabajadoras un negocio” ha enfatizado Olalde, trabajadora de la residencia Abeletxe de Ermua. Las trabajadoras del sector y representantes del sindicato abertzale han denunciado que en estos dos años de pandemia, las cosas “han ido a peor” y las trabajadoras “están al límite de sus posibilidades”. Se necesitan “más manos” que atiendan a nuestros mayores, y eso pasa, según ellas, por mejorar los ratios.

Mónica Rojo, con una experiencia de 20 años, ha denunciado el “incumplimiento” de los convenios por parte de las empresas, y ha pedido “limitar” el beneficio empresarial “a un máximo del 2%” y establecer las “mismas” condiciones laborales entre residencias públicas (4 en Bizkaia) y concertadas (155). En estas últimas, el salario viene a ser de “1.200 euros”, “insuficiente” para garantizar una vida independiente.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Rojo ha pedido también la “publicación” de los servicios sociales y otras mejoras como el reconocimiento de enfermedades y riesgos profesionales, como las lesiones musculoesqueléticas, la ansiedad o la depresión, para un colectivo que está obligado a jubilarse a los 67 años, “sin posibilidad de conciliar ni de reducir la jornada llegada cierta edad”.

## TERRENOS DE SAN ANTONIO DE ABIÑA

Por su parte, la comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía han rechazado una propuesta de EH Bildu para pedir a la Diputación la realización de un “informe técnico” sobre la decisión de integrar el barrio de Abiña en Busturia. La iniciativa ha sido rechazada por 6 votos a favor –la oposición al completo- y 9 votos en contra. Los grupos que sustentan el Gobierno foral han defendido su postura contraria por mantener que el caso “ya ha sido juzgado” y que en su día ya se hicieron los informes técnicos necesarios para que las Juntas Generales de Bizkaia tomaran en febrero de 2017 una decisión.

La plataforma ciudadana Sandineri reclamó el 11 de marzo en la misma comisión que se “subsana” este acuerdo plenario y se devolviera a Sukarrieta el barrio de San Antonio de Abiña, que pasó a ser Busturia definitivamente tras aprobarlo la Cámara vizcaína.

La disputa de los terrenos, en el que se encuadra la playa del mismo nombre y el Centro Urdaibai de BBK, que en estos momentos pertenecen a Busturia, se remonta a hace más de una década. Uno de sus últimos capítulos ocurrió hace un año cuando el Tribunal Supremo decidió cerrar la vía judicial al no admitir el recurso de casación interpuesto por el Ayuntamiento de Sukarrieta contra la sentencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco (TSJPV) que desestimaba el recurso contencioso-administrativo interpuesto por este municipio contra el acuerdo de Juntas Generales de Bizkaia de integración del barrio de Abiña en Busturia. Por eso, jeltzales y socialistas no entienden que haya grupos que quieran de nuevo reabrir este asunto.